

Txantxiku Ikastola

HEZKUNTZAREN ZIMENDUAK LEKUALDATZEN

Ez zaio arrotza Kilometroen jaien prestaketa Oñatiko Txantxiku Ikastolari. 1989an egin zuten aurreneko aldiz, eta irailaren 24an bigarrenez hartuko du jai herriak. Mende erdia bete du aurten ikastetxeak, eta berrikuntza pedagogikoaren zurrumbiloan iritsi da urtemugara.



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ARGAZKIAK: KILOMETROAK OÑATI

Hainbat oñatiarrek esan ohi dute inoiz gutxitan ikusi dutela herriko plaza 1989ko Kilometrotan bezain beteta; aparkalekuek gainez egin zuten, ogitar-tekoetarako ogi gabe geratu ziren tabernak, Eganek plaza osoa jarri omen zuen dantzan. Txantxiku Ikastola batxilergo ikasketak eskaintzen hasi zen garai hartan, eta aldaketa hari aurre egiteko, besteak beste, antolatu zen Gipuzkoako ikastolen jai Oñatin. Aurten 50 urte bete ditu ikastetxeak eta berrikuntza pedagogikoaren zurrumbiloan bete-betean sartuta ospatuko du festa.

3 urteko 28 ikaslerekin hasi zuen bidea Txantxikuk 1967an, klandestinitatean eta Elizaren babespean, gehienak lez. Aldaketak zenbakitan emanda, bost hamarraldiren ondoren, 0 urtetik 18 urte arteko heziketa eskaintzen du, eta 978 ikasle, 572 familia, 118 laguntzaile eta 86 langilek osatzen dute ikastola.

Zenbakietatik harago, hezkuntza munduak bizi dituen errokeni eta aldaketa-giroari engaiatuta dabil ikastola azken bolada luzean.

“Denok berdina esaten dugu: gizartea aurrera doa, gero eta informazio gehiago daukagu pertsonok nola funtzionatzaren dugun, zerk motibatzen gaituen... baina orain dela urte gutxi arte, klaseak duela 30 urte arteko moduan ematen genituen ia-ia, gelako paisaia berdina zen. Horrekin denarekin apurtu beharra sumatu da azkenengo hamar urteetan, eta aldaketa une horretan gaude: pentsatu, frogatu eta aldatu”, azaldu du Zigor Ibarzabal ikastolako zuzendariak. Konfiantzaren pedagogiaren ontzira batu ziren iragan ikasturtean, eta horren barruan kokatu dituzte 0-18 urte arteko etapa guztietan errotzen hasitako berrikuntzak: Ixutu proiektua, EKI ikasmaterialaren digitalizazioa, ikas-



keta kooperatiboa, eta Batxi Lab mintegiak, tartean. Ibarzabalen esanetan, “konfiantzaren pedagogia marko teoriko orokor bat da, haurraren irakas-kuntza ikusteko era bat, eta batez ere, harremanak lantzeko era bat”.

Iaz, kurtso hasierako sasoi honetan “dena dantzan” zegoen: Txantxikuk diseinatutako Ixutu proiektua abiatu zuten konfiantzaren pedagogiarekin baitan. Haurra norbanako bezala garatzeko eta adin ezberdinetako ikasleak interakzioan jartzeko, hormak botatzen, espazioa berrantolatzen eta proiektu arkitektoniko berria garatzen eman zuten uda, eta itxura erabat bestelakoarekin hasi zuten ikasturtea Haur Hezkuntzan. Pili Urzelai HHko koordinatzaileak argitu duenez, “0-3 artean Emili Piklerren teoriarekin aberasten da Ixutu (goxotasuna tratuan, umeen erritmo biologiko-koginitiboekiko errespetua...), eta



» Haur Hezkuntzan egindako lanak etapa guztietan eragin du ezbaian jartzea orain arteko lan egiteko modua

3-6 bitartean denboralizazioan eragiten du, batez ere; haurrek tarte malgua dute ikastolara etortzeko, gurasoak barruan egon daitezke umea lasai ikusi arte, 5 urteko bat egon daiteke bi urteko haurren eremuan...”

“Arlo teorikoan oso garatuta geneukan, baina arlo praktikoan ez geneukan esperientziarik, eta hasierako hilaibeteak gogorak izan ziren; estresa eta haserreak egon ziren”, aitortu du Ibarzabalek. Urtebete igarota, baina,

balorazioa oso ona dela dio, haurrek erakusten duten poztasunean antzematen dutela, baita gurasoengan ere. Gurasoak izan baitziren, hain justu, aldaketa bultzatu zutenak. Kooperatiba integrala da Txantxiku, eta Kontseilu



www.lana.eu



Errektorera gurasoek eraman zuten kilometroak antolatzeko proposamena; hautagaitza aurkezteko proiektu pedagogiko bat eraman behar denez, konfiantzaren pedagogiara batzeko aukera agertu zuten. "Aurretik ere gurasoek esaten ziguten berrikuntzen beharra zegoela, bailaran ikusten zituzten eredu berriak. Eta guk ere bageneukan egarri hori", adierazi du Nagore Altube Bigarren Hezkuntzako koordinatzaileak.

Gurasoen Kontseilua bera ere "hankaz gora" jarri dute. Gurasoek esan zuten Kontseilua zegoen moduan ez zela euren gustukoa, eta protagonismo handiagoa eta autonomia handiagoa emate bidean ari dira aldaketak egiten. Guraso eskolak ere sortu dituzte, "gurasoak pedagogiaren inguruan jantzeko".

Denak aldaketapean

"Dena pilatu zen, zuzendaritza berria ere une hartan sortu zen, eta barrura begira iraultza txikia izan da. Aldaketaren ardatza ikaslea da, baina komunitate osoan du eragina", aipatu du Iñaki Barrena Lehen Hezkuntzako koordina-



tzaileak. Bere arabera, Haur Hezkuntzan egindako lanak etapa guztietan eragin du ezbaian jartzea orain arteko lan egiteko modua.

Aurreko ikasturtean HH5ean zuzendak, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailara igaroko dira aurten, eta iaz hartutako bidea ez mozteko, LH1eko

**IBARROLA BEHEKOA
BASERRIA**

LAURGAIN AUZOA · 20809 AIA
PAGOETAKO NATURA PARKEA
© 943 83 45 49 / 659 21 53 92
ibarrolabekoa@hotmail.com
www.ibarrolabekoa.com

Jatetxea - Restaurante
NICOLASA

*Txangurroa labean
eta arraia plantxan
Eguneko menua eta bereziak*

© 943 515 469
Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)

**UZTARRI
JATETXEA**

janari
tradizionala

© 943 148 321 · Aizarnazabal
www.uztarrijatetxea.com

ZUBILLAGA

MAKILA ZERBITZUA: ARDI, BEHI ETA ZALDI AZIENDAK
BANAKETA
ZATIKETA ETA ONTZIRATZE ZERBITZUA

**Baserritarren etorkizuna eta
Euskal Herriaren elikadura subirotasuna babesten**

Zubillaga auzoa 63, 20560 Oñati · Tel.: 943 782 193 · Faxa: 943 781 512 · bulegoa@zubillagahiltegia.com · www.zubillagahiltegia.com

» **NAGORE ALTUBE, DBHKO KOORDINATZAILEA:**
 “Etorkizuna digitala izango dela argi dugu, baina trantsizio garaian gaude, eta denok behar dugu denbora bat egokitzeko”

» Gurasoak ere aldaketak egiten ari dira, protagonismo eta autonomia handiagoa hartze bidean. Guraso eskolak sortu dituzte, “gurasoak pedagogiaren inguruan janzteko”

» Txantxiku ikastolako elkarrizketatuek adierazi digutenez, “ikastolen artean lankidetzaren handia dago momentu honetan berrikuntzaren aldetik”

eremuak itxuraldatuta hasiko du ikasurtea: “Beste denboralizazio bat izango dute aurrerantzean ere, eta gelako espazioa aldatuko da. Horma zati batzuk bota ditugu barrutik ikasgelak komunikatuta egoteko, eta altzariak aldatu; ez da mahai bat egongo ikasleko, taldetako mahaiak eta asanbladetan batzeko espazioak atondu ditugu”, azaldu du Ibarzabalek. Ikasleek bederatzi proposamen izango dituzte astean zehar garatzeko: hiru arte-hizkuntzakoak, hiru matematika txokokoak eta hiru hizkuntza txo-

kokoak. Eurak antolatu beharko dira aste amaierarako egin beharra osatzeko. Lekeitioko ikastolan ere izan ziren, bertatik bertara ezagutzeko nola integratu zuten haiek metodologia berria Lehen Hezkuntzan. Diotenez, “ikastolen artean lankidetzaren handia dago momentu honetan berrikuntzaren aldetik”.

Bigarren Hezkuntzan jada berrikuntzaren gorpilean sartuta zeuden EKI ikasmaterialekin – Europatik ezarritako konpetentziak ikasmaterialean jasotzea du helburu EKIk-. Azken hiru ur-

teetan, EKIkren digitalizaziora egin dute jauzi, eta materialak zehazten dituen sei arlotatik hiruzpalau ordenagailuz lantzen dituzte. Altuberaren arabera, ikasleentzat erakargarriagoa da ordenagailuz ikastea: “Etorkizuna digitala izango dela argi dugu, baina trantsizio garaian gaude, eta denok behar dugu denbora bat egokitzeko”. EKI erabiltzen hasiko da Lehen Hezkuntzako seigarren maila aurretan. Datorren ikasturterako bosgarren mailan ere izango dute ikasmateriala, baina ez beherago. “Behetik gora



ikastola **garbia** eta bazkaria **gozoa**

Uribarri Etorbidea, 35
 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 79 46 11
 Fax: 943 79 43 66
 ausolan@ausolan.com
 www.ausolan.com

a
ausolan

Taldeetarako
 sukaldaritza
 eta garbiketa



ERBI BUS

MICROBUS EGOKITUA 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, 0V lokala
 Orereta - Errenteria
 Tel: 943 008 579 - 656 704 021
 www.erbibus.com / info@erbibus.com



Zorro-finantzarioak
kudeatzeko
software garapen
eta integrazioa.

Proiektuak kudeatzeko
software inplementazioa
hainbat metodologia erabiliz
(Scrum, kate kritikoa,
PMBOK, Phase-Gate...).

Obispo Otadui, 25
Oñati (Gipuzkoa)
www.almis.com



konfiantzaren pedagogiarekin goaz eta goitik behera EKIrekin, baina LH 3-4 tartean bien uztarketa egingo dugu”, aurreikusi dute.

Batxilergora begira ere, konpetentzien lanketan sakontzeko, BatxiLab bultzatu nahi du Ikastolen Elkartek, eta interesa sumatu dute horrekiko ikasleen artean. Interdiziplinitate askoko mintegi batzuk izango direla azaldu du Altubek, eta ikasturte honetan egin-egon dituztela lehen saioak.

Auzolanari lekaixoka

Etorkizunerako erronken artean naturarekin harremanak sakontzea du mahai gainean Txantxikuk: “Ikastola fisikoaz kanpo errekurso natural asko ditugu eta horiek ere izan daitezke baliabide didaktiko”. Bide horretan, duela hiru ikasturtetik DBH4ko ikasleak baratze bat kudeatzeaz arduratzen dira. Halaber, beste bi erronka orokor aipatu ditu zuzendaritza taldeak: berrikuntza pedagogikoaren bidetik urratsak ematen jarraitzea etapa guztietan, eta komunitatearen rola indartzea. “Gero eta gehiago zentratzen gara gure buruan, eta aurten ildo komunikatiboa auzolana zabaltzea izan da, hezkuntzan eta herri mailan”.

Ixutu proiektuarekin egin behar izan diren aldaketa fisikoak halaxe egin dituzte, auzolanean: “Egiturak gurasoek

egin dituzte asteburuetan, margotu, garbitu, tapizatu... denetik”. Elkarlan giro horrek Kilometroetarako egon den “parte-hartze altua” ekarri duelakoan da zuzendaritza taldea. “Jende asko mugitu eta hurbildu zuten ikastolara konfiantzaren pedagogiaren obrek, eta bide bat zabaldu du Kilometroetarako lantaldeak sortzeko; saretu egin da komunitatea”. Hortik aukeraturako leloa: *Lekaixoka*, auzolanerako deia darra.

Modu horretan egin ziren 89ko Kilometroak, eta hala aritu dira herritarrak aurten. Baina denbora horretan jazotako kanpo-aldaketek ere izan dute eragina. “Lehen ‘ikastola’ esatea nahikoa zen euskalduntasuna, herritartasuna, nazio ikuspegia esateko. Gaur egun baita ere, baina ez gara bakarrak, badira ildo horretako beste eredu batzuk, eta kontuan hartu behar da 89tik hona aktibazio soziala apaldu dela, edozein arlotan”, adierazi du Barrenak. Halere, egutegian gorritz markatutako egunerako denbora agortzekotan dela, eskertuta agertu dira urte osoan zehar talde guztietan (parekidetasuna, jasangarritasuna, komunikazioa, giza baliabideak, osasuna, prebentzioa...) izan den inplikazioaz. “Agian kalera irten eta esango dizute ez dela ezer aldatu –dio Barrenak–, baina gure ahalegina behintzat hor dago, eta ikuspuntua hori da: bagabiltza aldatzen”. ■



Errementari Plaza, 2-3 behea
Tel: 943 71 80 52-943 71 82 06
Fax: 943 71 80 52
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
E-mail: lizker@lizker.com



Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 810 489 / 687 527 664